

SEGMENTAZIOA produktua mugikorraren erabilera handia egiten duten pertsonentzat zuzenduta dago, hau da, bateria kargatzeko denbora ez daukatenentzat. Hori dela eta, gure bezeroak gazteak izango dira gehien batean, eskola eta bestelakoetan ematen dutelako egun osoa. Bestetik, gure prozesu eta material ekologikoak baloratzen dituzten pertsonentzat egokia izango da, baita herrian erostea gustoko dutenentzat ere.

Horrez gain, bezeroek ekonomikoki ondo egon behar dira, produktuaren salmenta prezioa nahiko altua izango delako.

Gure fundak noiz erosiko dira? Gure bezeroa mugikor berri bat erosten dutenean, gure funda erosteko momentua izango da.

Zertarako? Bere mugikorraren konfortasuna hobetzeko erosiko du, hau da, kargatzearen sahesketa eta horrela. Bereziki mugikorra asko erabiltzen zuen jendeari zuzenduta dago, horrela bateria gehiago eukiko dute.